

«Mikel Goñiren aurka ere joko ausartari eutsiko diot»

Juantxo Koka sasoi betean dago. Horma biak eta dejadak egiten maisu da pilotari altzatarra eta lehen aldiz Buruz Buruko Txapelketa Nagusiko final-zortzirenetan sartu da. Igandean, hilak 14, Koka Mikel Goñirekin neurtuko ditu indarrak Eibarko Astelehenan.

Raul Perez

Buruz Buruko Txapelketan Xala, Fernando Goñi eta Gonzalez gainditu dituzu joko bikaina erakutsiz. Espero al zenuen final-zortzirenetarako sailkatzea?


Egia esan, ez nuen uste hain urrun iritsiko nintzatekeenik. Helburu nagusia Bigarren Maila ekiditea zen. Horretarako, Xala gainditu behar nuen eta partidu hartan gorriak ikusi nituen. Zailtasunak zailtasun, Xalari irabazi eta Lehen Mailari eutsi nionetik presiorik gabe ari naiz.

28 urte dituzu. Diotenez, horixe da kirolarientzat adinik onena. Zure kasuan ere horrela dela dirudi...

Bai, hala da. Eskarmentu handiko pilotari bilakatu eta inoiz baino urrunago iritsi naiz Buruz-Buruko Txapelketan. Urtearen poderioz, gero eta erosoago ikusten dut nire burua pilotalekuan. Duela urte batzuk baino pazientzia askoz gehiago dut gaur egun eta pazientzia partida asko irabazteko lagungarria izaten da. Azken norgehiagokan Sebastian Gonzalezen zenbait zartakok urduri jarri ninduten, baina pazientziari esker partida aparteko zailtasunik gabe irabazi nuen. Horrez gain, Asegarcerekin hiru urtez kontratua luzatu izanak lasaitasuna eman dit.

Final-zortzirenetan Mikel Goñi izango

«Goñik partida menperatuz gero, akabo»



duzu aurrez aurre. Beldurtzeko moduko arerioa al da oronoztarra?

Nire jokoa egingo dut, orain arte emaitza ezinhobeak lortu baititut. Goñik pilota aurrean utziz gero, dejadekin edo horma biekian partida hausten ahaleginduko naiz. Goñik egundoko sarea du, eta neurketa menperatuz gero, akabo. Dena den Bigarren Mailako Txapela jantzi nuenean Goñi izan nuen arerio finalean. Beraz, badakit ez dela garaitezina.

Zuk dagoeneko hiru partida jokatu dituzu Buruz Buruko Txapelketan. Mikel Goñik bat ere ez. Nork du abantaila?

Inork izatekotan Goñik izan beharko luke. Nire eskuak jada erdipurdi daude. Harelere, Goñirentzat lehen partida denez, ez da sasoi betean izango eta hori da aprobeztatu behar dudana.

Orain arte jokatu dituzun neurketa guztiak Eibarren izan dira. Igandean ere Astelehena pilotalekuan ariko zara...

Bai, baina ez dut uste horrek eraginik izango duenik. Nik hiru urte neramatzan Eibarren jokatu gabe eta tarte horretan Goñik eskuz binakako hamaika partida jokatu ditu Astelehenan.

Aerobithona Benta-Berrin

Hilaren 13an, larunbata, Aerobithonaren hamargarren edizioa jokatu da 17.00etatik aurrera. Azken urteetan Gaskan egin eta gero, aurten Aerobithona Benta Berriko kiroldegian izango da.



Gros Xake taldea bikain

Joan den astean jokatuak Euskadiko Txapelketan Gros Xake taldeko jokalariek lehen postuetan sailkatu ziren. Felix Izetak txapela jantzi zuen, Santi Gonzalez bigarren izan zen eta Iñigo Argandoña ere lehen postuetan sailkatu zen.



Donosti Kayak hamargarren Espainiako Txapelketan

Joan den asteburuan Espainiako Piraguismo Txapelketa jokatu zen Sevillan. Guztira, 98 taldek parte hartu zuten eta Donosti Kayak sailkapen orokorrean hamargarren postuan sailkatu zen.

